



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

## Enkarterriko Museoak kultur jarduera ugariko programa batekin abiaraziko du ikasturtea

- **Zabalik dago epea ikastetxeek tailerretarako eguna erreserbatzeko izena eman dezaten. Iazko ikasturtean 8.600 neska-mutilek egin zituzten tailerrak: Enkarterriko Museoaren historian, kopururik handiena.**

Abellaneda, 2013ko irailaren 16a.

Enkarterriko Museoak 6 eta 16 urte arteko neska-mutilentzako hezkuntza-jarduera ugariko programa prestatu du 2013/2014 ikasturterako. Bizkaiko Batzar Nagusietako kultur zentroak, Abellanedako Batzarretxean dagoena (Sopuerta), eskualde horretako bizimodua eta historia erakutsiko ditu, hainbat erakusketa-elementuren bidez (pieza artistikoak, berregiteak, maketak, planoak edo argazkiak, besteak beste), baita etapa historikoei buruzko (Historiaurrea, Erromanizazioa eta Erdi Aroa) tailer praktikoaren bidez ere, ikasleek esperimendazioaren eta jolasaren eskutik ikas dezaten. Aurten gazteen Batzarra abiaraziko da, ekintza berri moduan, iraganean Enkarterriko Parlamentua nola zebilen azaltzeko.

Jarduera horiek egiteko, Museoak epea ireki du Bizkaiko eta probintzia mugakideetako ikastetxeek izena eman dezaten. Hortaz, nahi dutenek Museoko telefonoetara (94 650 44 88 / 94 610 48 15) deituko edo mezu elektronikoa idatziko dute (enkarterrimuseoa@bizkaia.net) ordua eskatzeko. Iazko ikasturtean 8.600 ikaslek eman zuten izena gela didaktikoetan; Museoaren historiaren kopururik onena izan zen, leku guztiak bete zirelako. Abellanedara 450 talde bertaratu ziren, gehienak Bizkaiko herrietatik eta Kantabriako eta Gipuzkoako ikastetxeek ere hartu zuten parte.

### ABELLANEDAKO JUNTETXEA, GAZTEEN PARLAMENTUA

Aurten, jarduera berri bat abiaraziko da: “Batzar gaitezen Abellanedan”. Batzarretxeko osoko bilkuren itxura egingo da, DBHko eta Batxilergoko ikasleen partaidetzarekin. Iazko probako esperientziak harrera ona izan zuenez, ekimen horrek, modu atseginez eta gazteen beraien eskutik, mendeetan zehar Bizkaia eta, hain zuzen ere, Enkarterriak izan duten antolaketa politikoa eta administratiboa ezagutzera emango du. Ikasleak batzarkide bihurtuko dira egun batez eta Batzar Nagusien zereginak eta eskumenak ezagutuko dituzte.

### HISTORIAURREARI, ERROMANIZAZIOARI ETA ERDI AROARI BURUZKO TAILERRAK

Edozelan ere, haurrentzako lehen jardueren artean, Historiaurreari eta Erdi Aroari buruzko tailerrak jarriko dira martxan lehenbizi. Urrian hasiko dira. Historiaurreari buruzkoan, ikasleek harrizko



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

lanabesak moldatzen, sua antzinako erara pizten edota labar-artearen egiten ikasiko dute. Erdi Aroari buruzkoan arte erromanikoaz ikasiko dute, eliza baten eraikuntzaren eskutik. Tailer horretan, idazkera gotikoaren oinarriak ere ikasiko dituzte. Urtarrilean, “Erromatarren atzetik” izeneko tailerrean erromatarren garaietara bidaiatuko dute ikasleek, eta modu erakargarri eta esperimental batean, zibilizazio horren elementu nagusiak ezagutuko dituzte.

### ARTE ESZENIKOAK

Halaber, txikienek ondo baino hobeto ezagutzen dituzten ekimenak antolatuko ditu berriro Museoak. “Bizi zure kontua” jardueraren bidez, Lehen Mailako Hezkuntzako ikasleak buru-belarri arituko dira istorio baten protagonistan izaten, arbasoen baserri-bizimoduan sartzeko. “Sor dezagun gure munstroa” ekimena, txikiek gure elizetan, komentuetan eta baselizetan bizi diren izaki fantastikoak eta munstroak ezagut ditzaten antolatu da. Tradizioaren aldeko apustua da eta, aldi berean, ipuin-kontalariak ere programatu dira, umeei ahozko istorioak kontatu diezazkieten.

Enkarterriko Museoak eskualdeko beste zentro batzuekin elkarlanean arituko da 2013/2014 ikasturtean ere. El Pobal burdinolarekin batera jarduera bat egingo du, burdinaren mundua ezagutarazteko bisitaldi gidatuak antolatzen, Enkarterria ekonomia- eta gizarte-arloetan garatzeko funtsezkoa izan baitzen.

### KULTUR IBILBIDEAK

2013/2014 ikasturtean hainbat txango egingo da: urriaren 12an, Enkarterriko Antonio Trueba kronikari eta idazlea jaio zenetik 125 urte igaro direla ospatzeko, kultur ibilbidea antolatuko da, Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean, Europako Ondareari buruzko Jardunaldien barruan.

Era berean, Barbadun ibaiaren arroko burdinolen, erroten eta dorreen 5. ibilbidea (“Burdinolen ibilbidea”) egingo da, Muskizetik abiatuta, Barbadun ibaiertzetik instalazio hidrauliko horiek (burdinolak eta errotak) eta arroko hainbat ondare-elementu ezagutzeko.

### ALDI BATERAKO ERAKUSKETAK

Aldi baterako erakusketei dagokienez, “Enkarterri, ehun urte Athleticekin” erakusketa azaroaren 30era arte egongo da ikusgai. Talde zuri-gorriak Enkarterriarekin duen harremana erakusten duen erakusketaren ondoren, “Somorrostroko marina. Enkarterriko ontzi-mundua” aldi baterako erakusketa egongo da ikusgai. Almiranteak, jeneralak, kapitainak, merkatariak, kontrabandistak, benakeroak, arrantzaleak, alturako pilotuak, baxurakoak, kortsarioak ... Enkarterriko kostaldeko marinelak, mendeetan zehar, entzute handikoak izan ziren eta Museoa prestatzen ari den erakusketa horrek Enkarterriak itsasoarekin izan zuen harreman hartan sakonduko du.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

### **Gehiago jakiteko**

---

- Ainara Arranz. Enkarterriko Museoko Hezkuntza eta Kultur Ekintza Saileko arduraduna (94 650 44 88).
- Javier Barrio. Enkarterriko Museko zuzendaria (Tel.: 656411760).

<http://www.enkartermuseoa.net/>

<http://www.facebook.com/pages/MUSEO-DE-LAS-ENCARTACIONES-ENKARTERRIETAKO-MUSEOA/155376924525304>



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## El Museo de las Encartaciones arranca el curso con un amplio programa de actividades culturales

- **Abierta la inscripción para que los centros escolares reserven fecha para los diferentes talleres programados por los que el curso pasado pasaron 8.600 niños y niñas, la cifra más alta en la historia del museo encartado.**

Abellaneda, a 16 de septiembre de 2013.

El Museo de Las Encartaciones ha preparado para el curso 2013/2014 un amplio programa de actividades educativas dirigido especialmente a niños y niñas con edades comprendidas entre los 6 y los 16 años. El centro cultural de las Juntas Generales de Bizkaia, ubicado en la Casa de Juntas de Abellaneda (Sopuerta), mostrará la vida e historia de la comarca a través de elementos expositivos (piezas artísticas, recreaciones, maquetas, planos, fotografías...) y talleres prácticos sobre diferentes etapas históricas (Prehistoria, Romanización y Edad Media), con la intención de que los escolares aprendan por medio de la experimentación y el juego. Como novedad, este año se incluye la puesta en marcha de una Junta juvenil para explicar como funcionaba en el pasado el Parlamento encartado.

Para poder realizar estas actividades, el Museo ha abierto ya el plazo de inscripción a todos los centros educativos del Territorio y provincias limítrofes. Los centros interesados pueden concertar cita previa a través de los teléfonos del museo (94 650 44 88 / 94 610 48 15) o por medio del correo electrónico ([enkarterrimuseoa@bizkaia.net](mailto:enkarterrimuseoa@bizkaia.net)). En el curso pasado, un total de 8.600 escolares completaron el cupo de inscripciones de estas aulas didácticas, lo que supuso la mejor cifra en la historia del centro encartado. Hasta Abellaneda se acercaron 450 grupos procedentes en su mayoría de localidades vizcaínas, aunque las actividades del museo no pasaron desapercibidas para centros escolares de Cantabria y Gipuzkoa.

### CASA DE JUNTAS DE ABELLANEDA, UN PARLAMENTO ABIERTO A LOS JÓVENES

La novedad de este año será la puesta en marcha definitiva del taller “Juntémonos en Abellaneda”, una simulación de lo que eran las sesiones plenarias en la Casa de Juntas, en este caso con la participación de alumnado de la ESO y Bachillerato. Tras la buena acogida que tuvo el año pasado la experiencia piloto, la iniciativa dará a conocer de una forma amena y con la participación de los propios jóvenes, la organización político-administrativa de Bizkaia a lo largo de los últimos siglos y más, concretamente, de las Encartaciones. Los alumnos y alumnas se convertirán en junteros y junteras por un día, y conocerán así las funciones y competencias de las Juntas Generales.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**B I Z K A I A**

## TALLERES SOBRE PREHISTORIA, ROMANIZACIÓN Y EDAD MEDIA

En cualquier caso, las primeras actividades infantiles en ponerse en marcha serán los talleres dedicados a la Prehistoria y a la Edad Media, los cuales comenzarán en el mes de octubre. En el primero, los alumnos aprenden a tallar útiles, hacer fuego y pintura rupestre. En el de la Edad Media, se instruyen sobre el arte románico mediante la construcción de una iglesia. En este taller se inician también en los fundamentos de la escritura gótica. Ya en el mes de enero, en el taller “Tras los Romanos”, los participantes viajarán en el tiempo hasta la época romana, y de una manera atractiva y experimental, conocerán los elementos más destacados de esta civilización.

## ARTES ESCÉNICAS

Asimismo, el Museo seguirá contando con otras iniciativas muy populares entre los más pequeños. En la actividad “Vive tu cuento”, los alumnos de primaria participarán activamente como protagonistas de una historia para penetrar en la vida rural de nuestros antepasados. Por su parte, la iniciativa “Creando monstruos” está pensada para que los pequeños conozcan los seres fantásticos y monstruos que pueblan nuestras iglesias, conventos y ermitas. En esta apuesta por la tradición, se han programado también diversos cuentacuentos que transmitirán historias orales a los niños.

El museo encartado seguirá apostando durante este curso por la colaboración con otros centros de interés de la comarca. Realizará una actividad conjunta con la Ferrería de El Pobal con visitas guiadas para dar a conocer el mundo del hierro, tan importante para el desarrollo económico y social de Las Encartaciones. Entre las salidas de este curso, se incluye el 12 de octubre un itinerario cultural para conmemorar los 125 años del nacimiento del cronista y escritor encartado Antonio Trueba.

## EXPOSICIONES TEMPORALES

En cuanto a las exposiciones temporales, la muestra actual “Cien años de Las Encartaciones con el Athletic” permanecerá abierta al público hasta el 30 de noviembre. La exposición sobre la relación del equipo rojiblanco con la comarca dará paso después a la muestra temporal: “La marina de Somorrostro. El Mundo naval de Las Encartaciones”. Almirantes, generales, capitanes, comerciantes, contrabandistas, venaqueros, pescadores, pilotos de altura y bajura, corsarios... Los marinos de la costa encartada fueron conocidos durante siglos y la muestra que prepara el museo de Abellaneda buceará en esa relación de Las Encartaciones con el mar.

### **Más información**

---

- Ainara Arranz. Responsable del Departamento de Educación y Acción Cultural del Museo de las Encartaciones (94 650 44 88)
- Javier Barrio. Director del Museo de las Encartaciones (Tfno.: 656411760)



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

<http://www.enkarterrimuseoa.net/>

<http://www.facebook.com/pages/MUSEO-DE-LAS-ENCARTACIONES-ENKARTERRIETAKO-MUSEOA/155376924525304>